

Arartekoaren herritarren foroa. hiri-mugikortasun jasangarria:

Hiri-mugikortasun jasangarrirako eskubidea eta betebeharrak, herritarren ikuspegitik begiratuta



Ondorioak

“Arartekoak antolatutako hiri-mugikortasun jasangarriari buruzko herritarren foroak herritar guztien artean eztabaida sustatzeko deia egin du, hiri gizatiarragoak, hurbilagoak, irisgarriagoak eta kutsadura gutxiagokoak dituen hiri-eredu berria lortzeko”.

Arartekoak herritarren lehen foroa antolatu zuen, Bilbon, 2024ko irailaren 11n. Bertan, erakunde, aditu eta herritarrek mugikortasun jasangarriaren gaineko erronkak eta aukerak jorratu zituzten.

Jardunaldi horretan ateratako ondorio nagusia hiriak ikuspegi hirukoitzetik eraldatzeko beharra izan da, hau da, mugikortasun aktiboa (oinezkoena eta bizikletena), garraio publikoa eta motordun ibilgailuen murrizketa sustatuta.

Emisio baxuko guneak, hiri-plangintza, eta pertsonen mugikortasunerako eta irisgarritasunerako eskubidea izan dira landu diren gai nagusiak. Era berean, gardentasuna eta herritarren partaidetza sustatzea eta hiri-eredua aldatu eta hiri inklusiboagoak eta osasuntsuagoak lortzea ezinbestekotzat jo da.

ONDORIOAK

Hona hemen Arartekoak mugikortasun jasangarriari buruz antolatutako herritarren foroan jasotako ondorio nagusiak:

1. Hiri-mugikortasunean paradigma aldatzeko beharra: Partaideek aho batez nabarmendu dute ingurumen egokirako eta pertsonen osasunerako eskubidea aitortzeko behar-beharrezkoa dela hirietako paradigma aldatzea, horietan batzen baita biztanleria gehien eta metatzen baitira kutsadura atmosferikoaren, zarataren eta berotegi-efektuko gasen emisioen ondoriozko eragin negatiboak (hain zuzen ere, klima-aldaketa eragiten ari direnak).

Hiriek, beraz, ibilgailu pribatu kutsakorraren erabilera oinarritutako egungo mugikortasun-eredua aldatu behar dute, eredu jasangarriago bat lortzeko, mugikortasun aktiboa (oinezkoena eta bizikletena), garraio publikoa eta ibilgailuen erabilera partekatua tarteko.

Arartekoaren herritarren foroa. hiri-mugikortasun jasangarria:

Hiri-mugikortasun jasangarrirako eskubidea eta betebeharrak, herritarren ikuspegitik begiratuta



Ondorioak

2. Hiri Mugikortasun Jasangarriko Planen (HMJP) aukera. Espainian azken urteetan egindako HMJPak tresna aitzindaria izan dira hiri-mugikortasuna eraldatzeko prozesuan, baina, gaur egunera arte, ez dute ibilgailuen trafikoa murrizketa esanguratsurik lortu. Foroan azaldutako diagnostikoan arrazoi posible moduan aipatu dira motordun ibilgailuen trafikoa murrizteko neurriak onartzeko orduan antzeman diren zailtasunak; beste udal-politika batzuekiko koherentzia-falta (esaterako, hiri-antolamenduarekiko edo ingurumen-babesarekiko), eta plan horien jarraipena eta ebaluazioa egiteko prozesuetan egondako zailtasunak.

Hori horrela, pertsona batzuek mugikortasun jasangarria beste politika batzuetan eraginkortasun handiagoz txertatzeko beharra azaldu dute, besteak beste hirigintza-antolamenduan eta, alderantziz ere, hau da, bide-azpiegituren politikak mugikortasun jasangarriko politiken bidean sartzeko beharra.

3. Emisio baxuko guneak (EBG) atzerapenik gabe ezartzea. Partaideek adierazi dutenez, hiri-espazioan emisio baxuko guneak arautzea, ibilgailu kutsakorren sarbidea mugatuz (nahitaezkoa neurria da hiri nagusietan, Klima-aldaketari eta energia-trantsizioari buruzko maiatzaren 20ko 7/2021 Legean aurreikusitakoaren arabera) HMJPetan sartu beharreko tresna nagusietako bat da, mugikortasun-eredua aldatzeko erronkari helduko bazaio. Gune horiek ezartzea funtsezkoa da airearen kalitate txarraren eta klima-aldaketaren aurka borrokatzeko, baina hori martxan jartzeko oraindik ere atzerapen handiak egoten ari dira, besteak beste beharrezkoa duen desafio tekniko eta sozialagatik eta, batzuetan, botere publikoen bultzada faltagatik.

Gune horiek martxan jartzeko ezinbestekoa da, era berean, hiri-espazioan eta, hala badagokio, bere testuinguru metropolitarran era egokian ebaluatzea gune horien diseinua eta dimentsioa. Ibilgailuen trafikoa sortzen dituen egungo emisio kutsakorrak murrizteko ingurumen-helburuak betetzen direla bermatu behar du, hain zuzen ere, EBGen eremuak, izendapen horretan sartzen diren udalerrietan. Era berean, EBG horiek tresna eraginkorra izan behar dira banaketa modalean aldaketa eraginkorra lortzeko, motordun ibilgailuak nabarmen murriztuz eta garraio publikoa edo mugikortasun aktiboa sustatuz.

Arartekoaren herritarren foroa. hiri-mugikortasun jasangarria:

Hiri-mugikortasun jasangarrirako eskubidea eta betebeharrak, herritarren ikuspegitik begiratuta



Ondorioak

4. Mugikortasun jasangarria hobetzeko beste neurri batzuk. Hirigintza taktikoa.

Foroan nabarmendu denez, HMJPeK espazio publikoa antolatzeko beste neurri batzuk sartu dituzte, ibilgailu pribatuen erabilera murrizteko ere eraginkorrak izaten ari direnak. Hirigintza taktikoa espazio publikoa esku-hartze azkar eta merkeen bidez hobetzen duen tresna erraz bat da. Ekintza txiki horiek (esaterako, kaleak aldi baterako oinezko bihurtzea edo espazio publiko adiskidetsuagoak sortzea) hiri-inguruaren pertzepzioa eta erabilera eraginkortasunez aldatzea dute helburu. Ekimenok, hala, herritarrei aukera ematen diete zuzenean esperimenta ditzaten espazio irisgarriago, inklusiboago eta jasangarriago baten onurak, eta, gainera, bizikidetzaren sustatzen duen mugikortasun-eredu aktiboago baterako bultzada izan daitezke, motordun ibilgailu pribatuen mendetasuna murriztu ahala.

5. **Mugikortasun jasangarrirako eskubidearen aitortza:** Partaideek berretsi dutenez, mugikortasun jasangarria beste eskubide batzuei lotutako eskubidea dela ulertu behar da; besteak beste, osasunerako eskubideari eta ingurumen egokiaz gozatzeko eskubideari lotuta. Mugikortasun jasangarrirako eskubide subjektibo horrek eraginkortasunez bermatu behar du pertsona guztiak askatasunez mugitu daitezkeela, oinarrizko zerbitzuak eskuratu ditzaketela, eta gure komunitateen bizitza sozial eta ekonomikoan aktiboki parte hartu dezaketela, mugikortasun-baldintza egokiak, seguruak eta irisgarriak edukita eta ingurumenean eta gizartean ahalik eta gutxien eraginda.

Horrenbestez, partaideek Euskadiko mugikortasun jasangarriaren azaroaren 9ko 11/2023 Legea eta Mugikortasun Jasangarriaren Legearen estatu-proiektua (gaur egun izapidetze-fasean dagoena) nabarmendu dituzte, bi arauak mugikortasun jasangarri eta segururako eskubidearen gutxieneko edukia ezartzen baitute, zerbitzu publikoen erregulazioarekin batera (halaxe egin behar da, esaterako, garraio publikoaren kasuan).

6. Gardentasuna eta herritarren partaidetzarako eskubidea, hartu beharreko neurriak onartzeko aukera.

EAEko legediak herritarrei zuzendutako eskubide instrumental batzuk sartu izana nabarmendu du Foroak. Eskubide horien artean sartzen dira informazioa eskuratzeko eskubidea, mugikortasunari buruzko planetan eta erabakietan parte hartzeko eskubidea, eta administrazio publiko eskudunek mugikortasun-planen ondoriozko jarduerak eskatzeko duten eskubidea.

Arartekoaren herritarren foroa. hiri-mugikortasun jasangarria:

Hiri-mugikortasun jasangarrirako eskubidea eta betebeharrak, herritarren ikuspegitik begiratuta



Ondorioak

Partaideen ustez, gardentasuna eta herritarren partaidetza oso garrantzitsuak dira hiri-mugikortasuna eraldatzeko beharrezkoak diren neurriak aitortu eta onartuko badira. Hori horrela, hainbat elkartek adierazi dute partaidetza-prozesuak, batzuetan, ez direla aski, edo erabakiak hartu ostean iristen direla. Era berean, prozesu horietan kolektibo guztiak sartuta egon behar direla adierazi dute, batez ere zaugarrienak. Hala, partaidetza aktiboagoa eta benetakoagoa eskatu dute mugikortasun-politiken diseinuan, horiek martxan jartzeko prozesuan, eta ezarritako helburuen betearazpenaren ebaluazioan.

7. Oinez dabiltzan pertsonen funtsezko zeregina espazio publikoaren banaketan.

Herritarren forotik atera den ondorio nagusietako baten arabera, espazio publikoaren banaketak bat egin behar du hiri-mugikortasun jasangarriaren helburu eta printzipioekin. Horretarako, espazio publikoaren erabileran hirietatik oinez mugitzen diren pertsonen lehentasuna ematea proposatzen da, horretarako oinezkoen mugikortasunerako plan estrategiko bat eginda.

Oinez dabiltzan pertsonen estrategiak kontuan hartu behar ditu generoa, belaunaldia eta desgaitasunen bat duten pertsonak, hiri-mugikortasuneko politikak diseinatu eta zehaztean.

8. Garraio publikoa sustatzea: Jardunaldian, garraio publikoak hiri-mugikortasun jasangarria lortzeko duen oinarrizko zeregina azpimarratu da. Partaideen esanetan, beharrezkoa da garraio kolektiboaren kalitatea eta irisgarritasuna hobetzea, erabiltzaile gehiago erakartzeko eta, hala, motordun ibilgailu pribatuen erabilera murrizteko. Gainera, hainbat ekimen aipatu dira: hobariak emateko politikak eta txartel bakarrean tarifak bateratzeko aukera, garraio publikoa eskuragarriago bihurtzen duten erabakiak baitira biak, batez ere pertsona nagusi eta gazteentzat. Era berean, garrantzitsutzat jo da garraio publikoa hiri-plangintzako beste arlo batzuekin koordinatzea, bere erabilera sustatu eta, hala, emisioak murrizten eta airearen kalitatea hobetzen laguntzeko.

Arartekoaren herritarren foroa. hiri-mugikortasun jasangarria:

Hiri-mugikortasun jasangarrirako eskubidea eta betebeharrak, herritarren ikuspegitik begiratuta



Ondorioak

- 9. Proposamen berritzaileak eta praktika onak:** Foroan praktika onak partekatu dira. Pontevedrako Udalak, esaterako, hirietan ibilgailu kutsakorren trafikoa murriztu eta bertako bizi-kalitatea hobetzeko irtenbide eraginkorrak azaldu ditu. Jardunaldian zehar, herritarren zientziaren adibide interesgarri bat ere aurkeztu da. Ekimen horretan, ikastetxe inguruetan airearen kalitatearen gaineko neurketak egin dira. Hala, gazteek modu aktiboan parte hartu ahal izan dute gune sentikorretako kutsadurari buruzko datuak biltzen (esaterako, ikastetxeetan), adingabeek maiz zapaltzen dituzten guneetako airearen kalitatea hobetzeko beharra ikusaraziz. Espazio publikoari buruzko erabakiak hartzeko eta hirietako osasuna eta jasangarritasuna hobetuko duten irtenbide praktikoak sortzeko orduan herritarrak inplikatzearen balioa azpimarratzen du proiektuak.
- 10. Bizikletaren erabilera sustatzeko proposamenak.** Foroan, bizikleten erabiltzaileen elkarteek garrantzia eman diote bizikleten plan estrategiko bat sustatzeari, bertan helburu argiak, jarraipen-plana eta emaitzen ebaluazioa jasoz. Halaber, txirrindularien elkarteek politika publikoak diseinatzeko orduan izan behar duten partaidetza aktiboa aldarrikatu dute.

Nahiz eta txirrindularien elkarteek partaidetza-mekanismoak egon badaudela aitortzen duten, beraien zeregina aktiboa izan behar dela diote, daukaten esperientzia eta ezagutza kontuan hartuta. Hori horrela, partaidetza hori hasierako faseetatik bermatu behar da, diagnostikoa egin eta planak eta programak gauzatzen direnetik, erabakiak hartzean ekarpenak egin ahal izan ditzaten, elkarrizketa bidez.

Txirrindulari-elkarteen ustez, beharrezkoa da bizikleten azpiegiturak hobetzea eta bidegorri integral eta seguruen sare bat garatzeko finantzaketa aski ziurtatzea. Halaber, administrazioentzat lotesleak diren bizikleta-bideak diseinatzeko eskuliburu teknikoak eta gidak sortzea proposatu dute, guztiak ere homogeneizatuak.

Azalpenean adierazi dutenez, garrantzitsua da udal-arlo desberdinen artean koordinazio eraginkorra izatea, bizikleta bidezko mugikortasuna sustatzeko. Horren barruan, galtzada batzuk behin-behinean itxiko ahalko dira trafiko kutsakorra sar ez dadin, eta bizikletei zuzendutako bide espezifikoak sortu.

Arartekoaren herritarren foroa. hiri-mugikortasun jasangarria:

Hiri-mugikortasun jasangarrirako eskubidea eta betebeharrak, herritarren ikuspegitik begiratuta



Ondorioak

Elkarteek Oslo eta Paris bezalako hirien adibideak nabarmendu dituzte, arrakastaz ari baitira ezartzen bizikleten gaineko politikak. Era berean, EAEko neurri positiboetako batzuk nabarmendu dituzte, besteak beste erdigune askotan bide gorriak sortzea eta bizikletak mailegatzeko sistema publikoak ezartzea.

Ondorioz, Arartekoak mugikortasun jasangarriari buruz antolatu duen herritarren foroari behar-beharrezkoa iruditzen zaio hiriak hiri-mugikortasuneko eredu inklusiboago, irisgarriago eta ingurumenarekiko errespetuzkoago baterantz bideratzea. Partaideen ustez, paradigma-aldaketa horrek motordun ibilgailu pribatuaren mendekotasuna murriztea, mugikortasun aktiboa eta garraio publikoa sustatzea, eta hiri-plangintzan herritarren partaidetza bermatzea izan behar du xede. Politika integralak aplikatuta eta administrazio publikoen eta herritarren lankidetzarako bide eraginkorrak ezarrita (mugikortasuneko subjektu desberdinen presentzia eta kolektibo zaurgarrien ordezkartza bermatuz) soilik lortuko da etorkizunean hiri osasuntsuagoak eta jasangarriagoak lortzea pertsona guztientzat.